

Berriz elkar ikustea

Hainbeste urte igaro dira,
neuk ere ez dakit nola,
etxea hau utzi nuela bueltan
ez etortzeko inola.
Orain babeslekutzat behar dut
lehen izan zena kaiola.
Atea ireki didanean
lotsaz so natzaiola,
gogora datorkit amak berak
esan zidala behinola
beldurra ematen dizun horri
heldu egin behar zaiola.

Gauza asko esan nahi nizkion
eta barrua askatu,
orain aurrez aurre gaude baina,
hara, ezin naiz ausartu.
Ezustean, altzoan dudan haurrak
negar zotina egin du.
Hitz bat bera esan gabe uste dut
dena duela ulertu:
aspaldi joandako alaba etorri eta
iloba ekarri dizu,
eta besarkatu gaitzakezu
edo joateko eskatu.

Nagusitan izan nahi nuen
printzeren baten andregai.
Bizitzak jarri dizkit, ordea, mila

tranpa, oztopo, sabai.
Haurra biren artean ekarri,
baina hark ez du arduratu nahi.
Bidea zein den ez dakit, ama,
nahi ez dudana zer den bai:
txarrik ezer ez dut egin eta
ez nazazuela epai,
(e)ta ez dezazula pentsa ez naizenik
ama on bat izateko gai.

Denbora luze joan da, alaba,
haserretu ginenetik,
nirekin baserrian lanera
behartu zintudanetik.
Neska zintzoek halaxe behar
zutela uste izanagatik,
agian oker nenbilela sarri
pentsatu izan dut geroztik.
Zalantzak hamaika izan ditut,
argi gauza bat bakarrik:
zuk aske izan nahi zenuen
nik nahi zintudan loturik.

Ez da izan ohi kontu samurra
gaizki eginak onartzea
eta gogorra egiten zaigu
barkamena eskatzea.
Baina beti daukazu zabalik
etxe honetako atea
eta laguntza behar baduzu
zeure esku dago sartzea.

Hala ere, lehenik neuri dagokit
begi bistakoa aitortzea:
nik neuk ez dakit esaten zer den
ama on bat izatea.

Ohiuek oihartzuna uzten dute
eta zauriek orbana,
baina, alaba, indartsu denak
burua tente darama.
Ezin bada ere akaso guztiz
atzean utzi iragana,
aurrera begira jartzea
zilegi bada, laztana,
munduan berria den bizi hau
pozez hartzera narama.
Haur honek maitasuna behar du
eta ez gure penen zama.

Larraitz Fagundez Osa

1998/10/09

Peru kalea 2, 5.b. 01012. Gasteiz (Araba)

688 62 62 89